



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	ERLIJIOA						DATA	2018-2019
MAILA				2.ZIKLOA				
1	ARLOAREN GUTXIENEO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							
<p>1. Jainkoa munduko kreatora dela ulertzea, munduaren jatorri gisa identifikatzea, gizaki guztionak diren ondasunak (animaliak, landareak...) zaintzeko eta errespetatzeko.</p> <p>2. Bibliako pertsonai desberdinak (Moises, Abraham, Noé) bideo eta irakurgaien bidez ezagutzea Jainkoaren ekintzak ikasteko.</p> <p>3. Jesusen jaiotzaren ospakizuna ulertzea gure tradizioekin erlazionatzeko, Eguberriak.</p> <p>4. Jesusen heriotza eta biztueraren ospakizuna ulertzea gure tradizioekin erlazionatzeko, Aste Santua.</p> <p>5. Baloreak, jarrerak eta arauak aztertzea eta ulertzea, bizitzako hainbat testuinguru eta egoeratan aplikatzeko.</p> <p>6. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientzia pertsonalak ezagutu eta onartzea, halaber, gainerakoekiko desberdintasunak errespetatzea eta autoestimua indartzea, bizitza pertsonaleko hainbat alderdiri era positiboan aurre egiteko.</p> <p>7. Afektibitatea lantzea eta sentimenduak eta emozioak adieraztea, betiere, eguneroko bizitzan eta talde-harremanetan autonomiaz eta arduraz jokatzeko.</p> <p>8. Bizikidetzara-arauak proposatzea, ezartzea eta betetzea, eta gatazka lantzeko elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea, guztien artean bizikidetzara osasuntsua eraikitzeko.</p> <p>9. Pertsona guztien eskubide-berdintasuna defendatzea, berdintasunezko jarrerak bultzatzea pertsonaren garapen integrala bermatzeko.</p> <p>10. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta kontsumo osasungarriko eta ingurune hurbila zaintzeko eta errespetatzeko jarrera arduratsuak indartzea, ingurunea erantzukizunez kudeatzen parte hartzeko.</p>								
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA							
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa			3. ebaluazioa		
	<ul style="list-style-type: none"> – Kreazioa: Jainkoa munduaren sortzailea. – Jainkoaren lagunak: Abraham, Moises eta Noé – Eguberriak 		<ul style="list-style-type: none"> – Aste Santua: Jesusen heriotza eta biztueraren. - Banakoaren nortasuna: ezaugarri fisikoak, kulturalak, sozialak, erlijiozkoak. – Pribatutasuna. Bakoitzak bere buruaz duen kontzeptua eta balioespena. Desberdintasuna errespetatzea. – Sentimenduak eta emozioak antzematea eta adieraztea. – Pertsonen arteko begirune eta 			<ul style="list-style-type: none"> – Bizikidetzara soziala. Bizikidetzarako, beharrezkoa da arauak ezartzea. – Gizabidezko ohiturak. Osasunarekiko, kontsumo arduratsuekiko eta ingurumenarekiko erantzukizuna. – Ikastetxean eta ingurune hurbilean 		



lankidetzaren harremanak (enpatia, konfiantza, errespetua, talde-lana...)
– Gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea.

ikasleek parte hartzeko foroak.

3

EBALUAZIO- IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Jainkoa munduko kreatora dela ulertzen du, guztionak diren ondasunak zaindu eta errespetatzen ditu.
2. Bibliako pertsonai desberdinak ezagutu eta desberdintzen ditu, bakoitzaren istorioa azaltzeko gai da.
3. Jesusen jaiotzaren ospakizuna ulertzen du eta Eguberriekin erlazionatzen daki.
4. Jesusen heriotzaren eta biztueraren ospakizuna ulertzen du eta Aste Santuarekin erlazionatzen daki.
5. Balore, jarrera eta arau multzoak, bizitzako egoera desberdinetan aplikatzen ditu.
6. Norberaren eta kideen berdintasunak eta ezaugarri pertsonalak errespetatzen ditu, bai eta pribatutasunerako eskubidea ere; eta norberaren ekintzen ondorioak onartzen ditu.
7. Eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan autonomiaz eta erantzukizunez komunikatzen da.
8. Bizikidetzaren arauak proposatzen eta betetzen ditu, gatazkari aurre egiteko eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzeko.
9. Pertsona guztien eskubide-berdintasuna balioesten du, eta berdintasunezko jarrerak bultzatzen ditu pertsonaren garapen integrala bermatzeko.
10. Ingurumenaren egoeraz ohartzen da eta kontsumismoarekiko eta ingurune hurbila zaintzeko erantzukizun-jarrerak indartu ditu.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluaketa jarraia izango da, talde lanetan oinarrituta. Hala ere, irizpideak honako hauek izango dira.

PROZEDURAK: %50

- Talde lanak: Horma irudiak, lanak, aurkezpenak, debateak
- Materiala: Txukuntasuna, zaintza....

JARRERA: %50

- Ardura eta jarrera: bakarkakoa, irakasle eta ikasleekikoa